## 2. UDAL AURREKONTUA. DOKUMENTAZIOA
## PRESUPUESTO MUNICIPAL. DOCUMENTACIÓN

### 2.7. Aurrekontuak Genero Ikuspeagiarekin
### Presupuestos con Enfoque de Género

# AURREKONTUAK ETA GENEROA
# PRESUPUESTOS Y GÉNERO

## I. TXOSTENAREN XEDEA ETA NORAINOKOA

Txosten hau egiten da indarreko arauzko eta erreferentziazko esparruan ezarritakoa betez. Hala, aipatzekoa da Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako Legearen 14.1. artikuluak ezartzen duela euskal administrazio publikoek genero-ikuspegia integratu behar dutela beren aurrekontu publikoetan, diseinatze-fasean bereziki, emakumeen eta gizonen premia desberdinekiko sentikorrak izan daitezen eta berdintasuna sustatzeko eta sexuaren araberako desparekotasunak deuseztatzeko lagungarri izan daitezen, eta, gainera, xede horretarako, dagozkion gidalerroak ezarri behar dituztela, haiek bete eta ebaluatzeko eta Haien jarraipena egiteko, baita trebakuntza-prozesu egokiak ere.

Bestetik, 18.1. artikuluak honako hau ezartzen du: "Arauak garatu eta aplikatzerakoan, bai eta planak, programak eta politika publikoak, diru-laguntzen programak eta administrazio-egintzak formulatzeko beste tresna batzuk garatu eta aplikatzerakoan ere, euskal herri-aginteek modu aktiboan izango dute kontuan emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko helburua".

Azkenik, 19.1. artikuluak, genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioaren harira, honako hau ezartzen du: "arau bat egiteko unean, euskal administrazio publikoek, hori sustatzen duen administrazio-organoaren bitartez, ebaluatu egin behar dute zein den proposamen horrek emakumeen eta gizonen egoeran izan lezakeen eragina. Horretarako, aztertu behar du arauan proiektatu den jarduketak ondoren positiboak edo kontrakoak izan litzakeen emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak ezabatzeko eta horien arteko berdintasuna sustatzeko helburu orokorrean".

Ildo beretik, emakumeen eta gizonen berdintasunerako Bilboko Udalaren Ordenantzak 16.2 artikuluan ezartzen du urtero txosten bat egingo dela, udalaren aurrekontu-programek emakumeen eta gizonen egoeran izan dezaketen eragina jasota.

Bestetik, azpimarratzekoa da emakumeen eta gizonen berdintasunerako V. udal-planak, zuzenean, hainbat tresna eskuragarri jartzen dituela, bizitzako eremu guztietan eta udal-sail guztietan genero-transbertsalitatea bultzatzeko.

Testuinguru horretan, genero-eraginari buruzko txosten bat sartu beharko litzateke, 2023ko ekitaldirako udal-aurrekontuaren genero-eragina aztertu eta ebaluatzeko, Udal Arau Teknikoetan Bilboko Udalaren 2023ko Aurrekontu Aurreproiektua egiteko ezarritako gidalerroei jarraikiz.

## I. OBJETO Y ALCANCE DEL INFORME

El presente informe se realiza en cumplimiento de lo establecido en el marco normativo y de referencia vigente. Así es necesario señalar la Ley para la igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista establece en su artículo 14.1. que las administraciones públicas vascas han de integrar la perspectiva de género en sus presupuestos públicos, en particular en su fase de diseño, con el fin de que sean sensibles a las diferentes necesidades de mujeres y hombres y de que contribuyan a promover la igualdad y a eliminar las desigualdades en función del sexo, determinando además que a tal fin, deben establecer las correspondientes directrices para su realización, seguimiento y evaluación, así como los oportunos procesos de capacitación.

Por otro lado, el artículo 18.1. establece que "los poderes públicos vascos han de tener en cuenta de manera activa el objetivo de la igualdad de mujeres y hombres en la elaboración y aplicación de las normas y de los planes, programas y otros instrumentos de formulación de políticas públicas, así como de los contratos, de los programas subvencionales y de los actos administrativos"

Finalmente, el artículo 19.1. en referencia a la evaluación previa de impacto de género, establece que "en el momento de acometer la elaboración de una norma, las administraciones públicas vacas, a través del órgano administrativo que lo promueva, han de evaluar el impacto potencial de la propuesta en la situación de las mujeres y en la de los hombres. Para ello, ha de analizar si la actividad proyectada en la norma puede tener repercusiones positiva o adversas en el objetivo global de eliminar las desigualdades entre mujeres y hombres y promover su igualdad".

A su vez, la Ordenanza del Ayuntamiento de Bilbao para la igualdad de mujeres y hombres establece en su artículo 16.2 que se elaborará anualmente un informe donde se recoja el impacto potencial en las situaciones de mujeres y hombres de los programas presupuestarios municipales.

Por otro lado, es importante resaltar la existencia del V Plan municipal para la igualdad de mujeres y hombres que, de forma directa, dota de instrumentos para la impulsar la transversalidad de género en todos los ámbitos de la vida y por todas las Áreas municipales.

En este contexto se determina la necesidad de incluir un informe de impacto de género que analice y evalúe el impacto de género del presupuesto municipal para el ejercicio 2023, siguiendo las directrices marcadas en las Normas Técnicas municipales para la elaboración del Anteproyecto de Presupuestos 2023 del Ayuntamiento de Bilbao.

## II. SARRERA

Aurrekontu publikoetan genero-ikuspegia berdintasuna errazteko tresna gisa txertatu beharra emakumeei buruzko Munduko IV. Konferentzian agertu zen inplizituki (Beijing 1995); izan ere, gobernuei eta gainerako eragileei gonbidatu zitzaien beren politika eta

## II. INTRODUCCIÓN

La introducción de la perspectiva de género en los presupuestos públicos como herramienta para favorecer la igualdad aparece implícita en la IV Conferencia Mundial sobre la mujeres (Beijing 1995) cuando se invitaba a los gobiernos y demás agentes a integrar la

programa guztietan genero-ikuspegia integratzera, emakume eta gizonengan dituzten ondorioak aztertzeko, eta erabakiak hartzeko ondorengo prozesua ahalbidetzeko. Testuinguru horretan, gobernu-aurrekontuetan genero ikuspegia integratu beharra eta aurrekontu horiek emakume eta gizonengan duten eragina aztertu beharra aipatzen da espresuki.

Ikuspegi hori lagungarri izan zen aurrekontuek normalean emakumeengan eta gizonengan dituzten eragin desberdinez jabetzeko, emakumeek betidanik pairatu duten diskriminazioa gainditzeko neurriak txertatzeko, eta ikuspegi hori emakumeen eta gizonen artean harreman berri, demokratikoago eta berdintasunezkoagoak indartzeko tresna baten antzera sendotzeko.

2007. urteaz geroztik, Bilboko Udalak, emakumeen eta gizonen berdintasunerako bidean aurrera egiteko udal-konpromisoa betez, udal-aurrekontuen Genero Eraginari buruzko txostena egiten du, urtero. Udal-plangintza politiko-ekonomikoan genero-transbertsalitatea aplikatzeko garatu diren prozesuak dokumentatzeko bide eman du horrek.

Ekonomia eta Ogasun Saileko Aurrekontu Zuzendaritzak eta Berdintasun Sailak batera gidatzen dute ekimena. Talde Eragilea osatzen dute, eta, beraz, beren gain hartzen dituzte genero-ikuspegia udal-aurrekontuetan integratzeko prozesuaren gaineko jarraipena, aholkularitza, koordinazioa eta kontrola, eta, gainera, aurrekontuari erantsi beharreko genero-eraginaren txostena egiteaz arduratzen dira.

## III. AURRERAPENAK GENERO-IKUSPEGIA BILBOKO UDALAREN AURREKONTUETAN INTEGRATZEKO PROZESUAN

2007. urteaz geroztik Bilboko Udalak genero-eraginaren 15 txosten egin eta aurkeztu ditu udal-aurrekontuak egiteko prozedura orokorraren barnean, eta esan dezakegu horrek agerian uzten duela Bilboko Udalak baduela estrategia propio bat aurrekontuak genero-ikuspegiaren arabera egiteko.

2023ko aurrekontu-ekitaldirako aurkeztu den txostenak, aurrekoen oinarrizko egiturari eusten badio ere, ikuspegi osoago bat dauka generoak aurrekontuan duen eraginari dagokionez. Ikuspegi horretatik, zehatz-mehatz azaltzen da baliabide ekonomikoak gastuen programa eta proiektuei nola esleitzen zaizkien, eta gure udalerrian oraindik indarrean jarraitzen duten desparekotasunetan izan dezaketen eragina ebaluatzen da.

Ikuspegi zehatzago horretatik txostenaren edukiak hobetu ahal izateko, aurreko ekitaldietan erabilitako metodologia orokorra eta tresnak berrikusi dira. Testuinguru horretan, aurrekontu-teknikaren alderdietan genero-ikuspegia integratzeko gidalerroak ezarri dira, Udalaren sail guztiei lagunduz. Horrez gain, organo kudeatzaileei trebakuntza eman zaie prozesuaren gainean, eta genero-eraginaren txostena egiteko erabilitako tresnak txertatzeko oinarrizko elementuen gainean.

Hala, txostenak informazio zehatzagoa ematen du orain, eta bat dator Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako Legearen 14.1 eta 14.3

perspectiva de género en todas las políticas y los programas para analizar sus consecuencias en las mujeres y los hombres respectivamente, para posibilitar el posterior procesos de toma de decisiones. En este contexto, se hace referencia expresa a la necesidad de integrar el enfoque de género en los presupuestos gubernamentales así como analizar el impacto de los mismos en mujeres y hombres.

Esta perspectiva ayudó a ser conscientes de los impactos diferenciados que frecuentemente tienen los presupuestos sobre mujeres y hombres, a incorporar medidas tendentes a superar la discriminación sufrida históricamente por las mujeres así como a consolidar este enfoque como un instrumento de potenciación de nuevas relaciones entre mujeres y hombres, más democráticas e igualitarias.

El Ayuntamiento de Bilbao, desde el año 2007, y en cumplimiento del compromiso municipal para avanzar en la igualdad de mujeres y hombres elabora anualmente el Informe de Impacto de Género de los presupuestos municipales. Este ejercicio ha permitido documentar los procesos que se han ido desarrollando para aplicar la transversalidad de género en la planificación político-económica municipal.

Esta iniciativa se lidera conjuntamente por la Dirección de Presupuestos del Área de Economia y Hacienda y el Área de Igualdad, quienes configuran el Equipo Motor y realizan, por tanto, el seguimiento, asesoramiento, coordinación y control al proceso de integración de la perspectiva de género en la presupuestación municipal, así como el ejercicio de elaborar el pertinente informe de impacto de género que debe acompañar al presupuesto.

## III. AVANCES EN EL PROCESO DE INTEGRACIÓN DEL ENFOQUE DE GÉNERO EN LOS PRESUPUESTOS MUNICIPALES DEL AYUNTAMIENTO DE BILBAO.

Desde el año 2007 hasta la actualidad el Ayuntamiento de Bilbao ha elaborado y presentado 15 informes de impacto de género integrados dentro del procedimiento general de la presupuestación municipal, pudiendo afirmarse que este hecho indica que el Ayuntamiento de Bilbao cuenta ya con una estrategia propia de presupuestación con perspectiva de género.

El informe que se presenta para el ejercicio presupuestario 2023 si bien mantiene una estructura básica, común a los anteriores informes, presenta una visión más completa del impacto de género en el presupuesto. Desde esta visión, se relacionan de manera pormenorizada la asignación de recursos económicos con programas/proyectos de gastos, y se evalúa su posible impacto en la reducción de las desigualdades que todavía persisten en nuestro municipio.

Para hacer posible esta mejora en los contenidos del informe –desde esa visión más pormenorizada- se han revistado tanto la metodología general como las herramientas utilizadas en ejercicios anteriores. En este contexto, se han establecido las directrices para la integración de la perspectiva de género en aspectos de técnica presupuestaria realizando una labor de asistencia a todas las Áreas del Ayuntamiento. Asimismo, se ha capacitado a los órganos gestores sobre el propio proceso y sobre los elementos básicos a incorporar en las diferentes herramientas empleadas para la elaboración del informe de impacto de géner

De este modo se cuenta con un informe que aporta información más concreta y ajustada a las modificaciones establecidas tanto en el artículo 14.1. como en el artículo 14.3 de la Ley para la Igualdad de Mujeres y hombres y

artikuluetan egindako aldaketekin. Horrek aukera ematen du arreta jartzeko, adibidez, emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak garatzera bideratutako gastu espezifikoen esleipenetan eta esleitutako zenbatekoan.

Ildo horretan, gure udal-jarduera lege horrek dioenaren barruan kokatzen dugu, zehazki honako puntu honekin lotuta: "Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoak modu aktibo eta progresiboan bultzatuko du Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren % 1, gutxienez, emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak garatzera bideratzea".

Txosten hau egiteko jarraitu beharreko prozedurari erreparatuz, aipatzekoa da, lehenik eta behin, esku hartzeko lehentasunezko eremuak zehaztu behar izan direla, eta ekimen horretan funtsezkoa izan dela abiapuntuko egoera aztertzea, udalerriko generoari dagokionez. Berdintasun Sailaren webgune bateko eranskin batean zehazten da informazio hori.

Bigarren urratsa izan da harreman bat ezartzea, berdintasun-politiken helburuen eta aurrekontu-gastuko proiektuen helburuen artean. Xede horretarako, programak kalifikatuko dira honako irizpide orokor hauen arabera:

- Beren jarduera guztietan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna helburu duten edo zuzenean emakumeen gainean eragiten duten programak.
- Aurrekoek ez bezala helburu espezifiko bat ez izan arren, beren jarduera guztietan emakumeen eta gizonen arteko eragin desberdina erakusten duten programak.
- Programa mistoak, emakumeengan eragiten duten jarduerak bildu arren, berdintasunean zuzeneko eragin nabaririk ez dutenak.
- Herritarren eta berdintasun-helburuen arteko zuzeneko harremana ezartzeko bidea errazten ez duten programak, pertsonen gainean zuzeneko edo zeharkako eraginik ez dutenak eta instrumentalak direnak.

Hortaz, gastu-proiektu horien eraldatzeko ahalmena, eragiteko gaitasuna eta berdintasun-alorrean aldatzeko palanka gisa jarduteko eraginkortasuna zenbaterainokoa den baloratu beharra dago.

Aldez aurretik azaldu dugunaren arabera, udal-estrategiak 4 Garrantzi Maila definitu ditu, ondorengo analisirako oinarrizko egituratzaile gisa:

- **1. maila.** Berdintasun-politikak sustatu eta kudeatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko desparekotasunak deuseztatzeko helburu bakarra duten gastu-proiektuak. Gastu-proiektu horien arabera antolatutako programa edo baliabideen helburua desparekotasun eta diskriminazioak zuzenean murriztea da, eta beraz, berdintasun-maila handiagoak ahalbidetzea. Ekintza positiboak deitzen diegu jardun horiei. Genero-desparekotasuna murrizteko gastu-proiektuak.
- **2. maila.** Emakumeen behar praktikoei arreta berezia ematea duten gastu-proiektuak. Gastu-proiektu horiei jarraikiz antolatutako programa edo baliabideek emakumeen bizi-kalitatea hobetzea bilatzen dute bereziki, baina ez dakarte beti egungo generoko rol edo estereotipoen aldaketa edo eraldaketarik. Emakumeen bizi-kalitatea hobetzeko gastu-proiektuak dira.
- **3. maila.** Herritarren premiak betetzeko zerbitzu, baliabide eta programak sustatzeko helburua duten gastu-proiektuak. Aurreko bi ataletan bildu ez diren hainbat ekimen hartzen ditu barnean. Ekimenen

vidas libres de violencia machista, pudiendo prestar atención, por ejemplo, a las asignaciones de gasto específicas dirigidas al desarrollo de políticas de igualdad de mujeres y hombres y al importe asignado.

En este sentido enmarcamos nuestra actuación municipal en lo establecido en la ley que concretamente dice "La Administración pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi promoverá de forma activa y progresiva que al menos el 1 % de los presupuestos generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi se dedique al desarrollo de políticas de igualdad de mujeres y hombres".

Prestando atención al procedimiento a seguir para la elaboración de este informe, es preciso señalar que la primera tarea ha consistido en determinar los ámbitos prioritarios de intervención, siendo fundamental para este ejercicio analizar la situación de partida en términos de género en la que se encuentra el municipio. Esta información se detalla en un anexo que se encuentra en la página web del Área de Igualdad.

El segundo paso ha sido establecer una relación entre los objetivos de las políticas de igualdad y los objetivos de los distintos proyectos de gasto presupuestario. A tal efecto los programas se van a calificar en función de los siguientes criterios generales:

- Programas que en todas sus actividades tienen por finalidad la igualdad de mujeres y hombres o inciden directamente sobre las mujeres.
- Programas no específicamente orientados como los anteriores pero que en todas sus actividades muestran un impacto diferenciado entre mujeres y hombres.
- Programas mixtos cuyas actividades impactan en las mujeres, pero en los que no se observa un impacto directo en términos de igualdad.
- Programas donde es difícil establecer su relación directa entre la población y los objetivos de igualdad, que no tienen una incidencia directa o indirecta sobre las personas y que son de carácter instrumental.

Se trata por tanto de valorar en qué medida estos proyectos de gasto tiene poder transformador, capacidad de impacto y efectividad para actuar como palanca de cambio en igualdad.

A tenor de lo explicado anteriormente, la estrategia municipal ha definido 4 Grados de Relevancia, como elemento vertebrador base para el posterior análisis:

- **Grado 1.** Proyectos de gasto cuyo único objetivo es promover, gestionar políticas de igualdad y/o eliminar las desigualdades de hombres y mujeres. Son proyectos de gastos que articulan programas o recursos dirigidos a disminuir las desigualdades, las discriminaciones existentes de manera directa contribuyendo a favorecer mayores cotas de igualdad. Son actuaciones que denominamos acciones positivas. Proyectos de gastos para reducir la desigualdad de género.
- **Grado 2.** Proyectos de gasto que inciden en atender de manera explícita las necesidades prácticas de las mujeres. Son proyectos de gastos que articulan programas o recursos que inciden en mejorar la calidad de vida de las mujeres, pero no conllevan necesariamente una modificación ni transformación de los roles ni estereotipos de género actuales. Proyectos de gasto para mejorar la calidad de vida de las mujeres.
- **Grado 3.** Proyectos de gasto que cuyo objetivo es promover servicios, recursos y programas destinados a satisfacer las necesidades de la ciudadanía. Abarca un conjunto de iniciativas no

analisia aldatu egiten da haien esku-hartzeen eraginaren balorazioaren arabera. Azken onuradunik badago, programa-erabiltzaileak sexuaren arabera bereiztea izaten da ohiko abiapuntua.

- **4. maila.** Emakumeen eta gizonen berdintasunerako jardunik edo helbururik esplizituki biltzen ez duten gastu-proiektuak.

Sailkapen hau egiteko erreferentzia gisa hartu da, berdintasun-helburu espezifikoak txertatzeaz gainera, zeharkako neurrien erabilera, hala nola:

- Hizkuntza eta irudi inklusibo eta ez-sexistak erabiltzea.
- Datuak sexuaren arabera bereiztea.
- Genero-adierazleen definizioa.
- Kontratazio publikoan berdintasunerako klausulak txertatzea.
- Dirulaguntzen berdintasunerako klausulak txertatzea.
- Genero-eraginaren aurretiazko ebaluazio-txostena.

Aurreko urteetan bezala, gaitasunek garrantzi handia dute txostenean, aukera ematen dutelako gastu-proiektuak eremu jakin batzuetan kokatzeko, hain zuzen ere, emakumeen eta gizonen berdintasuna ezinbestean landu behar diren eta pertsonen bizi-kalitatean zuzeneko eragina duten eremuetan. Jarraian, txostenean lantzen diren gaitasunak zerrendatzen dira, baita haiek definitzen dituzten alderdiak ere:

**Ordezkaritza sozio-politikoa:**

- Emakumeen ordezkaritza elkarte eta erakundeetan.
- Emakumeen ordezkaritza udal-eremuko erabakiguneetan.
- Emakumeen herritartasun aktiboa udal-programetan.
- Genero-ikuspegia udal-programetan integratzea.

**Autonomia ekonomikoa:**

- Lan-merkaturako sarbidea sustatzeko udal-programak.
- Gizarte-larrialdietarako udal-programak.
- Udal-kontratazioa zerbitzuak ematen dituzten enpresen bitartez.
- Udal-laguntza eta udal-dirulaguntzak ematea
- Etxebizitza bat eskuratzeko aukera erraztea

**Kontziliazioa eta erantzukidetasuna:**

- Kontziliazioa errazten duten udal-zerbitzu eta udal-ekipamenduak.
- Hurbileko ekipamenduak eta mugikortasuna.
- Kontziliaziorako zerbitzuak dauzkaten programak.

**Emakumeen segurtasuna:**

- Emakumeen aurkako indarkeria deuseztatzeko udal-zerbitzuak.
- Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko udal-programak.
- Emakumeen osasuna eta gorputz-integritatea.
- Osasunaren sustapena eta zaintza
- Larrialdi sozialen arretarako udal-zerbitzuak

incluidas en los dos apartados anteriores. Su análisis varía en función de la valoración del impacto de sus intervenciones. En el caso de que existan personas beneficiarias finales se suele partir de la desagregación por sexo de las personas usuarias de programas.

- **Grado 4.** Aquellos proyectos de gasto en los que no se recogen de manera explícita ni actuaciones ni objetivos vinculados a igualdad de mujeres y hombres.

En esta clasificación se ha tomado como referencia, además de la inclusión de objetivos de igualdad específicos, el uso de medidas transversales tales como:

- Utilización de lenguaje e imágenes de carácter inclusivo y no sexista.
- Desagregación de datos por sexo.
- Definición de indicadores de género.
- Inclusión de cláusulas para la igualdad en contratación pública.
- Inclusión de cláusulas para la igualdad en subvenciones.
- Informe de evaluación previa de impacto de género.

Al igual que en años anteriores, las capacidades tienen una gran relevancia en el informe puesto que permiten ubicar los proyectos de gasto en diferentes ámbitos donde resulta indispensable trabajar la igualdad de mujeres y hombres y que inciden directamente en la calidad de vida de las personas. A continuación, se enumeran las capacidades con las que se trabaja en el informe así como aquellas cuestiones que las definen:

**Representación social-política:**

- Representación de las mujeres en asociaciones y entidades.
- Representación de las mujeres en los espacios de decisión de ámbito municipal.
- Ciudadanía activa de las mujeres en programas municipales
- Integración de la perspectiva de género en los programas municipales.

**Autonomía económica:**

- Programas municipales dirigidos a fomentar el acceso al mercado laboral
- Programas municipales dirigidos a emergencias sociales.
- Contratación municipal a través de empresas prestadoras de servicios.
- Concesión de ayudas y subvenciones municipales
- Facilitar el acceso a la vivienda

**Conciliación y corresponsabilidad:**

- Servicios y equipamientos municipales que favorecen la conciliación
- Movilidad y equipamientos de proximidad.
- Programas que cuentan con servicios para la conciliación

**Seguridad de las mujeres:**

- Servicios municipales dirigidos a erradicar la violencia contra las mujeres
- Programas municipales dirigidos a prevenir la violencia contra las mujeres.
- Integridad corporal y salud de las mujeres.
- Promoción y cuidado de la salud
- Servicios municipales de atención a urgencias sociales

## IV. UDAL SARREREN GENERO-AZTERKETARAKO ESPERIENTIZA PILOA

Aurrekontu publikoetan genero-ikuspegia txertatzen jarraitzeko helburuz, 2021ean diru-sarrerak aztertzeko helburuz lan-ildo bat abiatu zen. Zehazki, generoaren arabera inpaktua ebaluatzeko bi proiektu pilotu garatzen dira, udalaren bi diru-sarrera motari buruz: tasak eta prezio publikoak. Zehatzago esanda, analisiak bi ordenantza hartzen ditu barruan:

08. Establezimenduak Zabaltzeko Lizentziaren Tasak Arautzen dituen Ordenantza Fiskala.

19. Udal Zerbitzuak eman edo Jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko prezio publikoak arautzen dituen ordenantza.

Udalek emandako zerbitzu baten trukean pertsonek eta enpresek ordaintzen duten ekarpen ekonomikoa da tasa. Prezio publikoa, berriz, herritarrek administrazio publikoari zerbitzu edo jarduera bat jasotzeko ordaintzen dioten dirua da.

Zehazki, tasak arautzen dituen ordenantza horri dagokionez, 1. artikuluak honela deskribatzen ditu tasak: “Zerbitzu teknikoak edo administraziozkoak ematea jarduera-lizentziak emateko eta ikuskizun publiko edo jolas-jarduera noizbehinkako eta jarduera nagusiaren osagarri eta lagungarrietarako baimenak emateko, (...) eta administrazioak gauzatzen dituen kontrol-zerbitzuak eta ondorengo egiaztatze- eta ikuskatze-zerbitzuak”.

Prezio publikoen ordenantzari dagokionez, 1. artikuluak adierazten du udalak eskumena duela “udal eskumeneko jarduerak egiteko edo zerbitzuak emateko prezio publikoak” ezartzeko eta exijitzeko.

Ordenantza horien testuinguruan, bereziki aztertu dira negozioak irekitzeko tasa eta hiru ikastaro, tailer eta programa motaren prezio publikoak: Kulturako ikastaro eta tailerrak, Gazteriako programa eta tailerrak, eta Berdintasun Sailaren tailerrak.

Proiektu pilotu honen garapena ikusi, joan 6. puntura.

## V. 2023ko AURREKONTUAREN ANALISIA

Bloke honetako edukiak garatu baino lehen, blokean garatu behar diren analisiak azaldu behar dira.

Lehenik eta behin, azaldu behar da analisi orokorrerako unibertsotzat hartu diren gastu-proiektuen zenbatekoa 473.090.800 eurokoa dela, hau da, 2023rako proiektatutako udal-aurrekontuaren (663.500.000 euro) % 71,3.

Beraz, ez dira analisi-unibertsotzat hartu programekin lotu gabeko zenbatekoak eta langileei buruzko 1. kapituluko proiektu batzuk (190.409.200 € guztira). Oraindik zehaztu gabe daude horiekin lotutako analisi-irizpideak. Horien azterketa hurrengo ekitaldietan egitea aurreikusten da.

Bigarrenik, aipatzekoa da modu sakonagoan garatutako analisiak arreta jarri duela, nagusiki, 1. eta 2. mailei lotutako gastu-proiektuetan, hau da, handitzat edo ertaintzat jo daitekeen genero-garrantzia duten gastu-proiektuetan. Hala, udal-aurrekontuari sakoneko begirada

## IV. EXPERIENCIA PILOTO EN ANÁLISIS DE GÉNERO DE PRESUPUESTOS MUNICIPALES

Con la finalidad de avanzar en la integración de la perspectiva de género en los presupuestos públicos, en 2021 se inicia una línea de trabajo dirigida a analizar los ingresos. Concretamente, se desarrollan dos proyectos piloto de evaluación del impacto en función del género de dos tipos de ingresos municipales, las tasas y los precios públicos. De forma más específica, el análisis se centra en las siguientes ordenanzas:

08. Ordenanza Fiscal Reguladora de las Tasas por prestación de servicios por Actividades e Instalaciones y Apertura y Establecimiento de Locales.

19. Ordenanza reguladora de los Precios Públicos por la prestación de Servicios o Realización de Actividades Municipales.

Las tasas se refieren a la contribución económica que pagan las personas y empresas en contraprestación por un servicio prestado por los municipios, y, los precios públicos, constituyen la cantidad dineraria que paga la ciudadanía a la administración pública para recibir una prestación de un servicio o actividad.

En concreto, con relación a la mencionada ordenanza reguladora de tasas, el artículo 1 declara que estas se corresponden “con la prestación de servicios técnicos o administrativos para la concesión de licencias de actividad y autorizaciones para la celebración de espectáculos públicos o actividades recreativas, (…) y los servicios administrativos de control, comprobación posterior e inspección”.

Con respecto a la ordenanza de precios públicos referida, el artículo 1 refiere las competencias municipales para el establecimiento y exigencia de “precios públicos por la prestación de servicios o la realización de actividades de competencia municipal”.

En el marco de las ordenanzas referidas se han analizado de manera específica la tasa de apertura de negocios, y los precios públicos de tres tipos de cursos, talleres y programas: Cursos y Talleres de Cultura, Programas y Talleres de Juventud, y Talleres del Área de Igualdad.

Para ver el desarrollo de este proyecto piloto, véase el punto 6.

## V. ANÁLISIS DE PRESUPUESTO 2023

Antes de desarrollar los contenidos de este bloque, es necesario describir los análisis que se van a desarrollan en el mismo.

En primer lugar, es preciso explicar que los proyectos de gastos que se han considerado como universo de análisis general suponen un importe de 473.090.800€, que supone el 71,3% del presupuesto municipal proyectado para 2023, que asciende a un total de 663.500.000€.

No se han considerado como universo de análisis, por tanto, los importes sin ligar a programas y varios proyectos del capítulo 1 de personal (que ascienden a un total de 190.409.200€) sobre los que todavía está pendiente la definición de criterios de análisis, estando previsto su análisis en próximos ejercicios.

En segundo lugar, es necesario señalar que el análisis desarrollado en mayor profundidad se ha centrado fundamentalmente en los proyectos de gastos asociados a los grados 1 y 2, es decir a aquellos proyectos de gastos con una relevancia de género que

bat emango zaiola bermatu da, emakumeen eta gizonen berdintasunean gehiago eragiteko aukerari dagokionez.

Gainera, proiektuak aztertzen dira lotzen zaizkien gaitasunak aintzat hartuta, horrela ikuspegi jakin bat lortu ahal izateko, hainbat arlo edo dimentsiotan, Bilboko emakume eta gizonen bizi-kalitatean eragina duten gastu-proiektuen garrantzia neurtzeko aukera emango duen ikuspegia, hain zuzen.

Bestetik, aipatzekoa da txosten honetan garatu den begirada sakonagoak, aipatu denez 1. eta 2. mailei lotutako gastu-proiektuetan zentratu denak, datu kuantitatiboak ematez gainera, udal-ordezkaritzen errealitatera kualitatiboki hurbiltzea ere badakarrela, eta txostenean dimentsio horri garrantzi berezia ematen zaiola, sakon-sakona izateko asmorik gabe, nolanahi ere. Ildo horretan, txostena irakurtzeak funtsezko informazioa ematen du udal-ordezkaritza guztien programa eta proiektuen gainean.

Azkenik esan 3. eta 4 mailei lotutako proiektuak ez direla txosten honetan aztertzen, nahiz eta horien dimentsio ekonomikoa kontsulta daitekeen, ordezkaritzen arabera banatua, txosten honen 1. eranskinean. Aipatzekoa da proiektu horien analisia, baita, 3. mailan kokatutako proiektuek nagusiki, 2. garrantzi-mailarantz aurrera egiteko egin dezaketen bidea ere, udal-sailekin garatzen jarraituko den prozesu baten zati direla, non genero-arloko neurri, ekintza eta tresnak aztertu eta udal-aurrekontua osatzen duten programetan integratzen diren.

Zehazki, honako analisi hauek garatzen dira:

- Aurrekontu-zenbateko osoaren banaketa garrantzi mailen arabera.
- 1. eta 2. mailetan kokatutako aurrekontu-zenbatekoaren banaketa ordezkaritzen arabera.
- 1. eta 2. mailetako aurrekontu-zenbatekoaren banaketa, gaitasunen arabera.
- 1. eta 2. mailetan kokatutako aurrekontu-zenbatekoaren banaketa ordezkaritzen arabera:
    - Ordezkaritza sozio-politikoaren gaitasunean
    - Autonomia ekonomikoaren gaitasunean
    - Kontziliazio eta erantzukidetasunaren gaitasunean
    - Emakumeen segurtasunaren gaitasunean

Esan behar da datorren ekitaldirako irisgarritasun-, mugikortasun- eta jasangarritasun-arloekin zerikusia duten eta garrantziaren arabera 3. mailan dauden proiektu guztiak batera aztertzea aurreikusten dela, horien azterketan sakontzeko.

Aipatzekoa da, halaber, analisian ez direla sartu langile-gastuen kapituluarekin lotutako aurrekontu-zenbatekoak, salbuespen bakar batekin: Berdintasun Saileko langile-gastuei buruzko 1. kapituluarekin lotutako zenbatekoa analisian sartu da, bere definizioaren eta lan-esparru esklusiboaren arabera, 1. mailan dagoelako (2023rako 840.800 euroko gastu-proiekzioarekin). Era berean, hurrengo ekitaldiei begira, langile-gastuen kapitulu horri dagozkion hainbat proiekturen gaitasunen eta garrantzi-mailaren araberako azterketa egitea aurreikusten da.

Beraz, testuinguru horretan, gogorarazi behar da aztertutako gastu-proiektuak (adierazitako salbuespenarekin) honako gastu-kapitulu hauekin lotuta daudela: 2. Ondasun eta Zerbitzuen gastu arruntak; 3. Finantza-gastuak; 4. Transferentzia arruntak; 6. Benetako

puede definirse como Alta y Media. De este modo se ha garantizado una mirada en profundidad hacia el presupuesto municipal en términos de mayor impacto potencial en la igualdad de mujeres y hombres.

Además, los proyectos se analizan atendiendo a las capacidades con las que se asocian, procurando de este modo alcanzar una visión que permita calibrar el peso de los proyectos de gastos en las distintas esferas o dimensiones que inciden en la calidad de vida de las mujeres y hombres de Bilbao.

Por otro lado, es preciso señalar que la mirada más en profundidad que se ha desarrollado en este informe, centrada como se ha comentado en los proyectos de gasto asociados a los grados 1 y 2, implica además de la facilitación de datos cuantitativos, un acercamiento cualitativo a la realidad de las delegaciones municipales, dimensión esta que cobra especial importancia en el informe, aunque sin pretensiones de ser totalmente exhaustiva. En este sentido, la lectura del informe facilita información clave sobre los programas y proyectos de las distintas delegaciones municipales.

Finalmente, señalar que los proyectos asociados a los grados 3 y 4 no se analizan en este informe, aunque puede consultarse su dimensión económica por delegaciones en el anexo 1 de este mismo informe. Es preciso señalar que el análisis de estos proyectos así como su potencial recorrido –principalmente de los proyectos situados en el grado 3- para avanzar hacia el grado 2 de relevancia es parte del proceso que se va a continuar desarrollando con las Áreas municipales, para analizar e integrar en los programas que conforman el presupuesto municipal medidas, acciones y herramientas en clave de género.

Concretamente, se desarrollan los siguientes análisis:

- Distribución del importe presupuestario total por grados de relevancia.
- Distribución del importe presupuestario ubicado en los grados 1y 2 por delegaciones.
- Distribución del importe presupuestario ubicado en los grados 1 y 2 por capacidades.
- Distribución del importe presupuestario ubicado en los grados 1 y 2 por delegaciones:
    - En la capacidad Representación social-política
    - En la capacidad Autonomía económica
    - En la capacidad Conciliación y corresponsabilidad
    - En la capacidad Seguridad de las mujeres

Es preciso señalar que para el próximo ejercicio se prevé analizar de manera conjunta todos los proyectos relacionados con los ámbitos de accesibilidad, movilidad y sostenibilidad y ubicados en el nivel 3 de relevancia, al objeto de profundizar en el análisis de los mismos.

Igualmente, es necesario señalar que no se incluyen en el análisis los importes presupuestarios asociados al capítulo de gastos de personal, con la única excepción del importe asociado al capítulo 1 de gastos de personal del Área de Igualdad, que por su propia definición y ámbito exclusivo de trabajo, se ubica en el nivel 1 (con una proyección de gasto para el año 2023 de 840.800€). Señalar igualmente que de cara a próximos ejercicios se prevé el análisis por capacidades y nivel de relevancia de varios proyectos correspondientes a este capítulo de gastos de personal.

En este contexto, recordar que los proyectos de gasto analizado se asocian, por tanto (y con la excepción señalada) a los siguientes capítulos de gastos: 2. Gastos corrientes en Bienes y Servicios; 3. Gastos financieros; 4.Transferencias corrientes; 6. Inversiones reales y 7.

inbertsioak; eta 7. Kapital-transferentziak.

Gaitasunen araberako analisietan, eta aldez aurretik aipatu dugunez, aurrekontu-zenbatekoaren eta ordezkaritzen araberako banaketaren datu orokorrez gain, proiektuetaranzko sakoneko begirada nagusitzen da.

Jarraian ikus dezakegu aurrekontua nola banakatzen den aldez aurretik aipatutako maila bakoitzaren arabera:

**1. irudia. Aurrekontu-zenbatekoaren** banaketa **garrantzi-mailen arabera.**

| Mailak | € | |
|---|---|---|
| 1. maila | 4.097.251 | 0,9 |
| 2. maila | 29.545.887 | 6,2 |
| 3. maila | 76.932.424 | 16,3 |
| 4. maila | 362.515.238 | 76,6 |
| **Guztira** | **473.090.800** | **100** |

*Udal-iturriak*

1. eta 2. mailetan dago aztertutako aurrekontu guztiaren (473.090.800 €) % 7,2: 1. mailan, % 0,9; 2. mailan, % 6,2. Nabarmentzekoa da, baita ere, 1. eta 2. mailei (garrantzi handia eta ertaina) dagokien aurrekontua 33.643.138 eurokoa dela guztira.

Ildo horretan, esan daiteke 1. mailari dagokion % 0,9 hori Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako Legearen 14.3 artikuluan zehazten den % 1etik hurbil dagoela.

Hirugarrenik, 3. garrantzi-mailari aurrekontuaren % 16,3 dagokio, eta 4. mailari, % 76,6. Datu horiek erakusten dutenez, hobetzeko tartea dago, hurrengo ekitaldietan 3. eta 4. mailekin lotutako gastu-proiektuen azterketa sakona egiteko prozesuan aurrera egiteko, berdintasunaren ikuspegitik izan dezaketen eragina hobetze aldera.

**2. irudia. 1. eta 2. mailetan kokatutako aurrekontu-zenbatekoaren** banaketa **ordezkaritzen arabera**.

| Ordezkaritza | € | % |
|---|---|---|
| Gizarte Ekintza | 16.682.386 | 49,6 |
| Ekonomiaren Garapena, Merkataritza eta Enplegua | 4.198.000 | 12,5 |
| Lankidetza, Bizikidetza eta Jaiak | 4.122.554 | 12,3 |
| Berdintasuna | 2.038.900 | 6,1 |
| Obrak, Hiri Plangintza eta Proiektu Estrategikoak | 886.875 | 2,6 |
| Kultura eta Gobernantza | 873.118 | 2,6 |
| Hiri Berroneratzea | 869.400 | 2,6 |
| Mugikortasuna eta Jasangarritasuna | 817.821 | 2,4 |
| Euskara eta Hezkuntza | 623.153 | 1,9 |
| Herritarren Arreta eta Partaidetza eta Nazioarteko Gaiak | 610.811 | 1,8 |
| Herritarren Segurtasuna | 554.956 | 1,6 |
| Osasuna eta Kontsumoa | 435.819 | 1,3 |
| Zerbitzuak eta Bizi Kalitatea | 380.800 | 1,1 |

Transferencias de capital.

En los análisis por capacidades, y como ya se ha comentado, además de los datos generales de distribución por importe presupuestario y delegaciones prima la mirada en profundidad hacia los proyectos.

A continuación, se puede observar el desglose del presupuesto por cada uno de los grados señalados previamente:

**Figura 1.** Distribución del **importe presupuestario por grados de relevancia.**

| Grados | € | % |
|---|---|---|
| Grado 1 | 4.097.251 | 0,9 |
| Grado 2 | 29.545.887 | 6,2 |
| Grado 3 | 76.932.424 | 16,3 |
| Grado 4 | 362.515.238 | 76,6 |
| **Total** | **473.090.800** | **100** |

*Fuentes municipales*

Del total del presupuesto analizado, que asciende a 473.090.800€ el 7,2% se ubica en los grados 1 y 2, correspondiendo al grado 1 el 0,9 y al grado 2 el 6,2%, respectivamente, habiendo de destacar también que el total de presupuesto asociado a los grados 1 y 2 (relevancia alta y media) asciende a 33.643.138€.

En este sentido puede señalarse que el 0,9% ubicado en el grado 1, se acerca al 1% establecido en el artículo 14.3 de la Ley para la Igualdad de Mujeres y hombres y vidas libres de violencia machista

En tercer lugar, el grado de relevancia 3 supone hasta el 16,3% del presupuesto y el grado 4, el 76,6%. Estos datos muestran el margen de mejora existente para, en próximos ejercicios, ir avanzando en el análisis en profundidad de los proyectos de gastos asociados a estos grados 3 y 4, de cara a mejorar su potencial impacto en términos de igualdad.

**Figura 2.** Distribución del **importe presupuestario ubicado en los grados 1 y 2 por delegaciones.**

| Delegación | € | % |
|---|---|---|
| Acción Social | 16.682.386 | 49,6 |
| Desarrollo Económico, Comercio y Empleo | 4.198.000 | 12,5 |
| Cooperación, Convivencia y Fiestas | 4.122.554 | 12,3 |
| Igualdad | 2.038.900 | 6,1 |
| Obras, Planificación Urbana y Proyectos Estratégicos | 886.875 | 2,6 |
| Cultura y Gobernanza | 873.118 | 2,6 |
| Regeneración Urbana | 869.400 | 2,6 |
| Movilidad y Sostenibilidad | 817.821 | 2,4 |
| Euskera y Educación | 623.153 | 1,9 |
| Atención y Participación Ciudadana e Internacional | 610.811 | 1,8 |
| Seguridad Ciudadana | 554.956 | 1,6 |
| Salud y Consumo | 435.819 | 1,3 |
| Servicios y Calidad de Vida | 380.800 | 1,1 |

| | | |
|---|---|---|
| Gazteria eta Kirola | 333.138 | 1,0 |
| Ogasuna | 169.096 | 0,5 |
| Alkatetza Kabinetea | 30.472 | 0,1 |
| Etxebizitza | 15.840 | 0,0 |
| **Aurrekontua, guztira, 1. eta 2. graduetan** | **33.643.138** | **100** |

*Udal-iturriak*

Zenbateko horrek udal-sailen arabera duen banaketari erreparatuz gero, ikus daiteke % 49,6 Gizarte Ekintzari dagokiola. Bigarren eta hirugarren daude, hurrenez hurren, % 12,5 eta % 12,3rekin, Ekonomiaren Garapena, Merkataritza eta Enplegua eta Lankidetza, Bizikidetza eta Jaiak.

Berdintasun Saila dago laugarren postuan, eta azpimarratzekoa da 1. mailarekin lotuta dagoela bere aurrekontuaren % 100. Izan ere, bere eskumenen artean dago emakumeen eta gizonen berdintasun-alorreko politikak bultzatzea, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako prebentzioa eta arreta barne (Bilboko Udalaren emakumeen eta gizonen berdintasunerako Ordenantzaren 7.1 artikulua).

Bestalde, ikuspegi orokor batetik, nabarmentzekoa da ia udal-sail guztiek (21etik 17k) zenbait gastu-proiektu dauzkatela emakumeen eta gizonen berdintasunean aurrera egiteko helburu bakar edo espezifikoarekin sortuak.

**3. irudia.** 1. eta 2. mailetako aurrekontu-zenbatekoaren banaketa, gaitasunen arabera.

| Gaitasunak | € | % |
|---|---|---|
| Kontziliazioa eta erantzukidetasuna | 15.868.541 | 47,2 |
| Emakumeen segurtasuna | 7.064.786 | 21,0 |
| Autonomia ekonomikoa | 6.594.483 | 19,6 |
| Ordezkaritza sozio-politikoa | 3.985.356 | 11,8 |
| Kontziliazioa eta erantzukidetasuna | 129.972 | 0,4 |
| **Aurrekontua guztira, 1. eta 2. mailetan, gaitasunen arabera** | **33.643.138** | **100** |

*Udal-iturriak*

Datu hori lotzen zaizkion gaitasunen arabera aztertzean ikus dezakegu, lehenik eta behin, % 47,2 kontziliazio eta erantzukidetasunean kokatzen dela, zerbitzu eta programa gehienek gaitasun hori errazten dutelako.

Bigarrenik, emakumeen segurtasunarekin lotutako proiektuak ageri dira, % 21ekin, eta hirugarrenik, autonomia ekonomikoarekin lotutakoak, % 19,6rekin. Laugarren tokian daude ordezkaritza sozio-politikoarekin lotutako proiektuak, % 11,8rekin.

Aldez aurretik azaldu dugunez, hortik aurrera garatzen diren analisiak, 1. eta 2. garrantzi-mailetan kokatutako gastu-proiektuetan ardazten dira espezifikoki, aldez aurretik aipatutako gaitasunetatik abiatuta.

Hala, gaitasun bakoitzean oinarrituta, ordezkaritzen araberako aurrekontu-zenbatekoaren analisi kuantitatibo bat garatuko da; horrez gain, lotutako gastu-proiektuak dauzkaten udal-sailek aurrera daramatzaten programa, jardun edo neurrietan arreta berezi bat jarriko da.

| | | |
|---|---|---|
| Juventud y Deporte | 333.138 | 1,0 |
| Hacienda | 169.096 | 0,5 |
| Gabinete de Alcaldía | 30.472 | 0,1 |
| Vivienda | 15.840 | 0,0 |
| **Total del presupuesto en los grados 1 y 2** | **33.643.138** | **100** |

*Fuentes municipales*

Si se realiza un desglose de ese importe entre las Áreas municipales, se puede observar que el 49,6% corresponde al Área de Acción Social, situándose en segundo y tercer lugar las Áreas de Desarrollo Económico, Comercio y Empleo y Cooperación, Convivencia y Fiestas, con porcentajes del 12,5 y 12,3 respectivamente.

En cuarto lugar se sitúa el Área de Igualdad, siendo necesario destacar que el 100% de su presupuesto está asociado al nivel 1, ya que dentro de sus competencias está el impulso de las políticas municipales en materia de igualdad de mujeres y hombres, incluyendo la prevención y atención a mujeres víctimas de violencia de género (artículo 7.1 de la Ordenanza del Ayuntamiento de Bilbao para la igualdad de mujeres y hombres).

Por otro lado, y desde una perspectiva general, es dato relevante que prácticamente todas las Áreas municipales (17 de 21) disponen de proyectos de gasto con objetivos únicos o específicos para avanzar en la igualdad de mujeres y hombres.

**Figura 3.** Distribución del importe presupuestario ubicado en los grados 1 y 2 por capacidades.

| Capacidades | € | % |
|---|---|---|
| Conciliación y corresponsabilidad | 15.868.541 | 47,2 |
| Seguridad de las mujeres | 7.064.786 | 21,0 |
| Autonomía económica | 6.594.483 | 19,6 |
| Representación social - política | 3.985.356 | 11,8 |
| Genérico | 129.972 | 0,4 |
| **Total presupuesto en los grados 1 y 2 por capacidades** | **33.643.138** | **100** |

*Fuentes municipales*

Si se analiza este dato según las capacidades a las que asocian, puede observarse que en primer lugar el 47,2% se ubica en la de conciliación y corresponsabilidad puesto que la mayor parte se trata de servicios y programas que favorecen la misma.

En segundo lugar, aparecen los proyectos asociados a la capacidad seguridad de las mujeres, con un 21%, mientras que en tercer lugar, aquellos asociados a la autonomía económica, con un 19,6%. En cuarto lugar, los proyectos asociados a la capacidad de representación social y política, con un 11,8%.

Como se ha explicado anteriormente, a partir de este punto los análisis que se desarrollan se centran de forma específica en los diferentes proyectos de gasto ubicados en los grados 1 y 2 de relevancia, partiendo de las capacidades señaladas previamente.

De este modo, en base a cada una de las capacidades, se va a desarrollar un análisis de importe presupuestario por delegaciones en términos cuantitativos, así como una mirada más enfocada hacia los programas, actuaciones o medidas que están desarrollando las diferentes Áreas municipales que tienen

proyectos de gastos asociados.

**Ordezkaritza sozio-politikoa**

Gaitasun horren bitartez lortu nahi da, nagusiki, emakumeen presentzia eta parte-hartzea handitzea, oro har eremu guztietan, eta bereziki, oraindik desparekotasun nabariak dituztenetan. Honako sail hauetan hartu dute gaitasun horri heltzeko ekimena:

- Berdintasuna.
- Kultura eta Gobernantza.
- Herritarren Arreta eta Partaidetza eta Nazioarteko Gaiak.
- Euskara eta Hezkuntza
- Lankidetza, Bizikidetza eta Jaiak.
- Gizarte Ekintza.
- Gazteria eta Kirola.
- Ogasuna.
- Mugikortasuna eta Jasangarritasuna
- Alkatetza Kabinetea.

**4. irudia. Ordezkaritza sozial-politikoaren gaitasunean 1. eta 2. mailetan kokatutako aurrekontu-zenbatekoaren** banaketa, ordezkaritzen arabera.

| Ordezkaritza | € | % |
|---|---|---|
| Berdintasuna | 1.151.597 | 28,9 |
| Kultura eta Gobernantza | 873.118 | 21,9 |
| Herritaren Arreta eta Partaidetza eta Nazioarteko Gaiak | 605.412 | 15,2 |
| Euskera eta Hezkuntza | 526.539 | 13,2 |
| Lankidetza, Bizikidetza eta Jaiak | 282.409 | 7,1 |
| Gizarte Ekintza | 256.484 | 6,4 |
| Gazteria eta Kirola | 148.915 | 3,7 |
| Ogasuna | 60.372 | 1,5 |
| Mugikortasuna eta Jasangarritasuna | 50.039 | 1,3 |
| Alkatetza Kabinetea | 30.472 | 0,8 |
| **Aurrekontua guztira, 1. eta 2. mailetan, ordezkaritza sozial-politikoaren arabera** | **3.985.356** | **100** |

*Udal-iturriak*

Jarraian, horietatik inplementatzen ari diren ekintzen berri emango da, erabat zehatza izateko helbururik ez duen programen eta proiektuen lagin batean oinarrituta.

**Berdintasun Sailak** ordezkaritza sozial-politikoa lantzen du espezifikoki, zenbait bidetatik. Lehenik eta behin, elkarte-mugimenduan esku hartzen du, Bilboko udalerriko emakume eta feministen elkarteetako mugimendua indartu eta ahalduntzeko dirulaguntza-lerro espezifiko baten eskutik. Gainera, Berdintasunaren aldeko Bilboko emakumeen Kontseilua bultzatzen du, sektore-kontseilu hori partaidetza ta solaskidetza sozialerako gune gisa hartuta. Emakumeen elkarte eta erakundeek osatzen dute Kontseilua, eta guztiek ere bete behar dituzte Berdintasunaren aldeko Bilboko Emakumeen Kontseiluaren Antolamendu eta Funtzionamendu Erregelamenduan ezarritako betekizunak.

Bigarrenik, emakumeekin berekin, parte hartzeko eta ahalduntzeko gune bat edukitzeko aukera izan

**Representación social-política**

A través de esta capacidad, principalmente, se pretende incrementar la presencia y participación de las mujeres en general en los distintos ámbitos y, de forma especial, en aquellos en los que todavía hay desigualdades. Las Áreas que están abordando esta capacidad son:

- Igualdad.
- Cultura y Gobernanza
- Atención y Participación ciudadana e Internacional.
- Euskera y Educación.
- Cooperación, Convivencia y Fiestas.
- Acción Social.
- Juventud y Deporte.
- Hacienda.
- Movilidad y Sostenibilidad.
- Gabinete de Alcaldía.

**Figura 4.** Distribución del **importe presupuestario ubicado en los grados 1 y 2 en la Capacidad Representación social-política** por delegaciones.

| Delegación | € | % |
|---|---|---|
| Igualdad | 1.151.597 | 28,9 |
| Cultura y Gobernanza | 873.118 | 21,9 |
| Atención y Participación Ciudadana e internacional | 605.412 | 15,2 |
| Euskera y educación | 526.539 | 13,2 |
| Cooperación, convivencia y fiestas | 282.409 | 7,1 |
| Acción social | 256.484 | 6,4 |
| Juventud y deporte | 148.915 | 3,7 |
| Hacienda | 60.372 | 1,5 |
| Movilidad y sostenibilidad | 50.039 | 1,3 |
| Gabinete de alcaldía | 30.472 | 0,8 |
| **Total presupuesto grados 1 y 2 en representación social y política** | **3.985.356** | **100** |

*Fuentes municipales*

A continuación, se van a ir trasladando aquellas acciones que se están implementando desde las mismas, en base a una muestra de programas y proyectos que no tiene objetivo de ser totalmente exhaustiva.

El **Área de Igualdad** trabaja, de manera específica la representación social-política desde varias vías. En primer lugar centra su intervención en el movimiento asociativo con una línea de subvenciones específica para el fortalecimiento y empoderamiento del movimiento asociativo de mujeres y feministas en el municipio de Bilbao. Asimismo, impulsa el Consejo de las mujeres de Bilbao por la igualdad, entendiendo este consejo sectorial como un espacio participativo y de interlocución social. El Consejo compuesto por asociaciones u organizaciones de mujeres (debiendo cumplir los requisitos establecidos en el Reglamento de Organización y Funcionamiento del Consejo de las mujeres de Bilbao por la igualdad).

En segundo lugar, con las propias mujeres de manera que puedan disponer de un espacio para la

| | |
|---|---|
| dezaten, beren denboraren zati bat aisialdirako izateko bide emanez. "Bilbo emakumeak" tailerrak adibide bat izan daitezke. Horrez gain, sektorearteko ikuspegi batetik, sexu- eta genero-aniztasunarekin lotutako zenbait ekimen garatzen dira, esaterako, Zinegoak Bilboko gaylesbitrans nazioarteko zinema eta arte eszenikoen jaialdiarekiko Hitzarmena. | participación y para su empoderamiento, favoreciendo que puedan destinar parte de su tiempo al ocio. Un ejemplo podrían ser los Talleres Bilbao Mujeres. Asimismo, y desde una perspectiva interseccional, se desarrollan diversas iniciativas vinculadas la diversidad sexual y de género como pudiera ser el Convenio con Zinegoak (Festival internacional de cine y artes escénicas gaylesbitrans de Bilbao). |
| Hirugarrenik, eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin elkarlanean, DenBBora Sarearen bitartez gai horietan berritzeko estrategiak garatzen ari diren erakunde eta enpresekin esku hartzen dugu; denboraren erabilera berrietan sakontzea ahalbidetzen du Sare horrek. | En tercer lugar, y junto con la Diputación Foral de Bizkaia, con entidades y empresas que están desarrollando estrategias para innovar en estas cuestiones mediante la Red DenBBora Sarea que permite profundizar en los nuevos usos del tiempo. |
| Laugarren tokian, jarrera lesbo-homofoboen prebentzioari helduz. Bilboko herritarrak sexu- eta genero-aniztasunaren gainean sentsibilizatzeko logika batekin jarduteko premiatik. | En cuarto lugar, abordando la prevención de actitudes lesbo-homófobas. Desde la necesidad de actuar con un lógica de sensibilización a la ciudadanía de Bilbao sobre la diversidad sexual y de género. |
| Azkenik, Udalaren barne-mailan, emakumeen eta gizonen berdintasunean eta emakumeen aurkako indarkerian espezifikoki prestatutako langileak izanik, eta ildo horretan aipatzekoa da, halaber, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako V. Udal Planaren jarraipena eta ebaluazioa. | Finalmente, a nivel interno del Ayuntamiento, disponiendo de personal específico y formado en igualdad de mujeres y hombres y en violencia contra las mujeres, habiendo de mencionar igualmente el seguimiento y evaluación del V Plan municipal para la igualdad de mujeres y hombres. |
| **Kultura eta Gobernantza Sailak** ordezkaritza sozial-politikoari lotutako zenbait ekintza garatzen ditu. | El **Área de Cultura y Gobernanza** desarrolla diversas acciones vinculadas a la representación social-política. |
| Lehenik, Gobernantza Zuzendaritzatik, eta, barne-mailan, Bilboko Udaleko langile guztiei eskainitako prestakuntza-eskaintza orokorraren barruan, aipatzekoa da 2022an 13 ikastaro espezifiko txertatu direla, emakumeen eta gizonen berdintasunean eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioan zein sexu- eta genero-aniztasunean trebatzeko. Bigarrenik, udal-talde politikoentzako esleipen ekonomikoetarako partida espezifiko bat ezartzen du, partida horien erdia politiketarako izanik. | Desde la Dirección de Gobernanza en primer lugar, y a nivel interno, dentro de la oferta formativa general ofrecida a toda la plantilla del Ayuntamiento de Bilbao, cabe señalar la incorporación en 2022 de 13 cursos específicos para la capacitación tanto en igualdad de mujeres y hombres y violencia contra las mujeres así como en diversidad sexual y de género. En segundo lugar, fija una partida específica para las asignaciones económicas a los grupos políticos municipales, yendo la mitad de esa partida a las políticas. |
| Bestetik, Kultura Zuzendaritzak bultzatzen du genero-ikuspegia Udalaren kultura-eskaintzan integratzea, Bidebarrieta Kulturgunea, Bilboko Zirkuitua edo beste programa jakin batzuetan emakumeek parte-hartze esanguratsua izan dezatela erraztuz. Ildo beretik, liburutegietatik egin beharreko eskaintzan ere egiten dira genero-ikuspegia txertatzeko ahaleginak, herritarren eskura jarriz emakumeek idatzitako liburuak, edo berdintasunarekin zein genero-indarkeriaren prebentzioarekin lotutako gaiei buruzkoak. | Por otro lado, desde la Dirección de Cultura se apuesta porque en la oferta cultural del Ayuntamiento se integre la perspectiva de género facilitando que, en determinados programas como Bidebarrieta Kulturgunea o Bilboko Zirkuitua haya una participación de mujeres significativa. Asimismo, en la oferta a realizar desde las bibliotecas también se trabaja en la incorporación de la perspectiva de género, poniendo a disposición de la ciudadanía, libros escritos por mujeres o que abarquen temáticas vinculadas a la igualdad o a la prevención de violencia de género. |
| Bestetik, **Herritarren Arretako eta Partaidetzako eta Nazioarteko Gaietako Sailak** hiru eremu bereizitan eragiten du. | Por su parte, el **Área de Atención y Participación Ciudadana e Internacional** incide en tres ámbitos diferenciados. |
| Batetik, herritarren arretan, emakumeei udal-informazioa telefono bidez eskuratzeko bide emanez. Kontuan hartu beharra dago 2021ean, 010 zenbakian artatutako deien % 66 emakumeek egin zituztela. | Por una parte, en la propia atención ciudadana favoreciendo que las mujeres puedan acceder a la información municipal por vía telefónica. Se debe tener en cuenta que, en 2021, el 66% de las llamadas atendidas en el 010 fueron realizadas por mujeres. |
| Bestetik, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari edo emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioari lotutako gaiek Bilbao Aldizkarian funtsezko zeregina izan dezatela bultzatuz, herritarrak sentsibilizatu eta inplikatzeko helburuarekin. | Por otro lado, favoreciendo que las temáticas vinculadas a la igualdad de mujeres y hombres o la prevención de la violencia de las mujeres tengan un papel clave en el Periódico Bilbao con el objetivo de sensibilizar e implicar a la ciudadanía. |
| Azkenik, Bilbao Balioen Hiria proiektuaren barruan, berdintasuna Bilbo barruko oinarri-oinarrizko eta ezinbesteko balio gisa finkatuz. Horrek esan nahi du sarietako baten jomuga emakumeen eta gizonen berdintasuna eta gai horri heltzeko ekintzak inplementatzea izan behar duela. | Finalmente, dentro del proyecto Bilbao Balioen Hiria, fijando la igualdad como un valor esencial e imprescindible dentro de Bilbao. Esto se traduce en que uno de los premios se destine a la igualdad de mujeres y hombres y a implementar acciones para abordar esta cuestión. |
| **Lankidetza, Bizikidetza eta Jaietako Sailak** lan espezifiko bat egiten du etorkinekin, bi alorretan. | El **Área de Cooperación, Convivencia y Fiestas** realiza un trabajo específico con las personas inmigrantes que se traduce en dos cuestiones. |
| Batetik, beren elkarteei beren jardunetan genero-ikuspegia integratzeko bidea erraztuz. Bestetik, Bilboko Immigrazioaren Behatokian, datu bereiziak aztertuz, | Por una parte, favoreciendo que sus asociaciones integren la perspectiva de género en sus actuaciones. Por otra parte, en el Observatorio de la Inmigración en |

Bilboko Saharaz Hegoaldeko emakumeengan bereziki eraginez, Emakumea, Osasuna eta Indarkeria Programarekiko loturaren harira.

Horrez gain, ekintza espezifikoak gauzatzen ditu, emakume elkarteek Immigrazioaren Tokiko Kontseiluan, Auzoak Abian Kulturarteko Esku-hartze Komunitarioko Proiektuan eta antzeko beste ekimen batzuetan parte hartzeko aukera izan dezaten, udal-politika publikoen diseinuan parte hartzeko bidea erraztuz.

**Gizarte Ekintzako Sailak** hainbat neurri inplementatu ditu, Bilbo, adinekoekin adeitsua den hiria eta Bilbo, haurren lagun den hiria proiektuen barruan ordezkaritza orekatu bat lortu ahal izateko, eta horrek suposatzen du emakumeek horietan parte-hartze aktibo bat izan dezaketela.

**Gazteria eta Kirol Saila** bi eremutan zentratzen da.

Batetik, Bilborock programan, emakumeei musika-eremuan parte hartzeko bidea erraztuz, entseatzeko tokiak lagaz edo emakumeei emakumeentzako jarduerak egiteko bidea erraztuz, Femme Bilbao adibidez.

Bestetik, gazteentzako aisia alternatiboko jarduerak garatzen dira, nesken parte-hartzea bultzatzeko bereziki mutilek diharduten jarduera jakin batzuetan, hala nola robotika edo skate, eta nesken eskarietara molda daitezkeenak garatzeko, neska eta mutilei lotutako rolak eta estereotipoak gainditūz.

Bestetik, **Ogasun Saila** arduratzen da udal-aurrekontuetan genero-eraginaren txostena egiteko zerbitzua kontratatzeaz.

**Alkatetza Kabineteak**, indarreko lege-betebeharraz eta hizkuntza eta irudi egokiak erabili beharraz jakitun, gai horretan eragin du Bilboko Udalaren sare sozialak eta InfoBilbaoren albistegiak kudeatzeko kontratuan.

## Autonomia ekonomikoa

Gaitasun honetan, bereziki, kalteberatasun bereziko egoeran dauden emakumeentzako jardunak hartzen dira aintzat. Zehazki, gaitasun honi lotutako programak garatzen dituzten sailak honako hauek dira:

- Ekonomiaren Garapena, Merkataritza eta Enplegua.
- Lankidetza, Bizikidetza eta Jaiak.
- Gizarte Ekintza.
- Berdintasuna
- Etxebizitza
- Ogasuna.

**5. irudia. Autonomia ekonomikoaren gaitasunean 1. eta 2. mailetan kokatutako aurrekontu-zenbatekoaren** banaketa, ordezkaritzen arabera.

Bilbao, analizando datos desagregados, haciendo especial hincapié en las mujeres subsaharianas bilbaínas por la vinculación con el Programa Mujer, Salud y Violencia.

Asimismo, lleva a cabo acciones específicas para que asociaciones de mujeres puedan participar en espacios como el Consejo local de la Inmigración o como el Proyecto de Intervención Comunitaria Intercultural Auzoak Abian, facilitando la participación en el diseño de políticas públicas municipales.

El **Área de Acción Social** ha implementado medidas de manera que se pueda obtener una representación equilibrada dentro de los proyectos Bilbao Ciudad amiga de las personas mayores y Bilbao Ciudad amiga de la infancia lo cual supone que las mujeres puedan tener una participación activa en los mismos.

El **Área de Juventud y Deporte** se centra en dos ámbitos.

Por una parte, en Bilborock, programa en el que se facilita que las mujeres participen en el ámbito musical bien mediante la cesión de espacios para ensayen o bien mediante la realización de actividades por mujeres o dirigidas a mujeres, como Femme Bilbao.

Por otra parte, en el desarrollo de actividades de ocio alternativo para jóvenes en las que se trabaja para que se produzca una mayor participación de las chicas en actividades consideradas más masculinizadas como robótica o skate y para el desarrollo de aquellas que se puedan ajustar a sus demandas, superando los roles y estereotipos vinculados a chicas y chicos.

Por su parte, el **Área de Hacienda** lleva a cabo la contratación del servicio consistente en la realización del informe de impacto de género en los presupuestos municipales.

El **Gabinete de Alcaldía**, consciente de la obligación legal existente y de la necesidad de hacer un uso del lenguaje e imágenes adecuado, ha incidido en esta cuestión en el contrato relativo a la gestión de las redes sociales de Bilbao Udala y de los boletines informativos de InfoBilbao.

## Autonomía económica

En esta capacidad, se contemplan principalmente actuaciones destinadas a mujeres que se encuentran en situación de especial vulnerabilidad. Concretamente, las Áreas que despliegan programas asociados a esta capacidad son:

- Desarrollo Económico, Comercio y Empleo.
- Cooperación, Convivencia y Fiestas
- Acción Social.
- Regeneración urbana
- Igualdad.
- Vivienda.
- Hacienda

**Figura 5.** Distribución del **importe presupuestario ubicado en los grados 1 y 2 en la Capacidad Autonomía Económica** por delegaciones.

| Ordezkaritza | € | % |
|---|---|---|
| Ekonomiaren Garapena, Merkataritza eta Enplegua | 4.198.000 | 63,7 |
| Lankidetza, Bizikidetza eta Jaiak | 1.453.222 | 22,0 |
| Gizarte Ekintza | 407.424 | 6,2 |
| Berdintasuna | 390.000 | 5,9 |
| Berdintasuna | 120.000 | 1,8 |
| Etxebizitza | 15.840 | 0,2 |
| Ogasuna | 9.996 | 0,2 |
| **Aurrekontua guztira, 1. eta 2. mailetan, autonomia ekonomikoaren arabera** | **6.594.483** | **100** |

*Udal-iturriak*

Aurreko atalean bezala, honako honetan ere autonomia ekonomikoaren gaitasunaren barnean dauden esparruen adibideak zehaztuko ditugu.

**Ekonomiaren Garapen, Merkataritza eta Enplegu Sailak** emakumeen ekintzailetzan jartzen du arreta berezia, enpresa-sustapenaren barruan.

**Lankidetza, Bizikidetza eta Jaietako Sailean,** aipatzekoa da genero-aldagaiak garrantzi berezia duela garatzen diren programa guztietan, programa horiek zuzenean gauzatu edo beste erakunde batzuen eskutik gauzatu, Sailaren dirulaguntzen bitartez.

**Gizarte Ekintzako Sailari** dagokio lehen arretako gizarte-zerbitzuak garatzea, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen prestazio eta zerbitzuen zorroan ezarritakoari jarraikiz. Horregatik, politika publikoak inplementatzen dituzte kalteberatasun bereziko egoeretan dauden emakumeentzat, hala nola etxebizitzarik gabeko emakumeentzat edo gizarte-bazterkeriako arriskuan edo beste egoera batzuetan daudenentzat. Gainera, sektorearteko ikuspegiari arreta eskaintzen zaio, emakume kolektibo espezifiko batzuk, guraso bakarreko familiak adibidez, programa espezifikoen beharrean daudela aintzat hartuta.

**Berdintasun Saila,** gaitasun horren barruan, emakumeen eskura baliabideak jartzeaz arduratzen da, bereziki genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen artean. Hala, batetik, programa espezifiko bat garatzen du, genero-indarkeriaren biktima izanik, laguntza espezifiko eta intentsiboago bat behar duten emakumeen gizarteratzea eta laneratzea errazteko. Bestetik, genero-indarkeriaren biktima diren emakume bereziki kalteberentzako programak garatzen ditu, dauden kalteberatasun-egoera gainditzeko eremu espezifikoak lantzeko edo laguntza ekonomikoak jasotzeko beharrean daudenak, administrazio publikoek ematen dituztenak jasotzeko moduan egon arte.

**Etxebizitza Sailak** dauka, bere helburuen artean, kalteberatasun bereziko egoeran dauden pertsonen eskura etxebizitza bat eskuratzeko aukera erraztea, eta horien artean, guraso bakarreko familiak eta genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak aipatu behar dira.

__Kontziliazioa eta erantzukidetasuna__

Gaitasun honetan sartzen dira pertsonen bizitza pertsonala eta familia- eta lan-bizitza kudeatzea errazten duten programa eta zerbitzuak, dependentzia duten pertsonen zaintzari dagokionez. Espazio publikoaren kudeaketarekin zerikusia dutenak ere hartzen dira barne.

- Gizarte Ekintza
- Obrak, Hiri Plangintza eta Proiektu Estrategikoak.

| Delegación | € | % |
|---|---|---|
| Desarrollo Económico, Comercio y Empleoo | 4.198.000 | 63,7 |
| Cooperación,Cconvivencia y Fiestas | 1.453.222 | 22,0 |
| Acción Social | 407.424 | 6,2 |
| Regeneración Urbana | 390.000 | 5,9 |
| Igualdad | 120.000 | 1,8 |
| Vivienda | 15.840 | 0,2 |
| Hacienda | 9.996 | 0,2 |
| **Total presupuesto grados 1 y 2 en autonomía económica** | **6.594.483** | **100** |

*Fuentes municipales*

Como en el apartado anterior, en este también se van a ir concretando ejemplos de los diferentes ámbitos englobados dentro de la Capacidad de Autonomía económica.

El **Área de Desarrollo económico, Comercio y Empleo**, dentro de la promoción empresarial, presta especial atención al emprendimiento de las mujeres.

En el **Área de Cooperación, Convivencia y Fiestas** es preciso señalar que en los diferentes programas desarrollados la variable género tiene una especial trascendencia bien se realicen manera directa bien se lleven a cabo por otras entidades mediante subvenciones del Área.

Al **Área de Acción Social** le corresponde el desarrollo de los servicios sociales de atención primaria establecidos en la Cartera de prestaciones y servicios de la ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales. Es por ello que implementan políticas públicas que sirven a mujeres que se encuentran en situaciones de especial vulnerabilidad como son mujeres sin hogar, en riesgo de exclusión social u otras situaciones. Además, se presta atención a la perspectiva interseccional desde la conciencia de que hay colectivos específicos de mujeres que requieren de programas específicos como pueden ser las familias monomarentales.

El **Área de Igualdad**, dentro de esta capacidad, se centra en dotar de medios y recursos a las mujeres, especialmente a las víctimas de violencia de género. Así, por una parte, desarrolla un programa específico para facilitar la inserción sociolaboral de mujeres víctimas de violencia de género que requieren de un apoyo específico y más intensivo. Por otra parte, lleva a cabo programas que se centran en aquellas mujeres víctimas de violencia de género, especialmente vulnerables, que requieren o bien trabajar ámbitos específicos para poder superar la situación de vulnerabilidad en la que se encuentran o dotarlas de ayudas económicas hasta que puedan disponer de aquellas que las diversas administraciones públicas otorgan.

El **Área de Vivienda** tiene entre sus objetivos facilitar el acceso a la vivienda a personas en situación de especial vulnerabilidad, debiendo mencionar a las familias monomarentales y a las mujeres víctimas de violencia de género.

__Conciliación y corresponsabilidad__

Se engloban en esta capacidad aquellos programas y servicios que faciliten la gestión de la vida personal, familiar y laboral de las personas con relación al cuidado de personas dependientes. También se incluyen los relativos a la gestión del espacio público.

- Acción Social
- Obras, Planificación Urbana y Proyectos Estratégicos

- Zerbitzuak eta Bizi Kalitatea.
- Gazteria eta Kirola.
- Berdintasuna.

**6. irudia. Kontziliazio eta erantzukidetasunaren gaitasunean 1. eta 2. mailetan kokatutako aurrekontuzenbatekoaren** banaketa, ordezkaritzen arabera.

| Ordezkaritza | € | % |
|---|---|---|
| Euskara eta Hezkuntza | 14.341.700 | 90,4 |
| Berdintasuna | 878.180 | 5,5 |
| Gazteria eta Kirola | 380.800 | 2,4 |
| Mugikortasuna eta Jasangarritasuna | 184.223 | 1,2 |
| Berdintasuna | 83.639 | 0,5 |
| **Aurrekontua guztira, 1. eta 2. mailetan, kontziliazioaren eta erantzukidetasunaren arabera** | **15.868.541** | **100** |

*Udal-iturriak*

**Gizarte Ekintza Saila**k Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua artikulatzen du, zaintzapean dauden pertsonen eta haien ingurukoen bizi-baldintzen hobekuntzan (kontziliazioari dagokionez) eragin zuzena duen zaintza-programa gisa.

**Obretako, Hiri Plangintzako eta Proiektu Estrategikoetako Saila**k, aldiz, berdintasun-helburuak kontuan hartuta garatzen ditu bere proiektuak hirirako proiektatzen dituen esku-hartzeetan. Baita **Zerbitzuen eta Bizi Kalitatearen Saila**k ere, Bilbon parkeak, lorategiak eta jolasguneak planifikatzen dituenean.

**Gazteria eta Kirol Sailak** gizarte- eta hezkuntza-aisiako hainbat programa garatzen ditu haur, nerabe eta gazteentzat, baita egonaldiak ere, hainbat oporralditan. Programa horiek baliabide esanguratsuak dira horietara jotzen duten familien artean kontziliazioa eta erantzukidetasuna errazteko, eta ildo horretan aipatzekoa da, halaber, jardueren programazioa zehaztu eta garatzean genero-berdintasuneko irizpideak hartzen direla kontuan, eta programari buruzko datuen informazioa bereizita egiten dela.

**Berdintasun Sailak** dirulaguntza-lerro bat jarri du indarrean denboraren erabilerak orekaz banatzeko bidea errazteko helburuarekin, etxeko zereginetan eta pertsonen zaintzan erantzukidetasuna sustatuz eta gurasotasun arduratsua bultzatuz, emakumeek eta gizonek Bilboko udalerriko bizitzako arlo guztietan bete-betean parte hartzeko aukera izan dezaten. Gurasoen Elkarteak edo Bilboko ikastetxe publiko edo itunduak daude lerro horren jomugan.

**Emakumeen segurtasuna**

Gaitasun honi dagokionez, bi eremu handi bereiz daitezke: emakumeen aurkako indarkeria (laguntza zein prebentzioa) eta osasuna.

- Lankidetza, Bizikidetza eta Jaiak.
- Gizarte Ekintza.
- Mugikortasuna eta Jasangarritasuna
- Berdintasuna.
- Herritarren segurtasuna.
- Hiri-berroneratzea.
- Osasuna eta Kontsumoa.
- Ogasuna

- Servicios y Calidad de Vida.
- Juventud y Deporte
- Igualdad

**Figura 6.** Distribución del **importe presupuestario ubicado en los grados 1 y 2 en la Capacidad Conciliación y Corresponsabilidad** por delegaciones

| Delegación | € | % |
|---|---|---|
| Acción social | 14.341.700 | 90,4 |
| Obras, Planificación Urbana y Proyectos Estratégicos | 878.180 | 5,5 |
| Servicios y Calidad de Vida | 380.800 | 2,4 |
| Juventud y Deporte | 184.223 | 1,2 |
| Igualdad | 83.639 | 0,5 |
| **Total presupuesto grados 1 y 2 en conciliación y corresponsabilidad** | **15.868.541** | **100** |

*Fuentes municipales*

El **Área de Acción Social** articula el Servicio de Ayuda a Domicilio, como programa orientado al cuidado de las personas que impacta directamente en la mejora de las condiciones de vida de las personas cuidadas y de las personas del entorno de estas, en términos de conciliación.

Por su parte, **el Área de Obras, Planificación Urbana y Proyectos Estratégicos** desarrolla sus proyectos atendiendo a la consideración de objetivos de igualdad en los mismos, en las distintas intervenciones que proyecta para la ciudad. Igualmente, **el Área de Servicios y Calidad de Vida** en la planificación que hace de los espacios de parques, jardines y zonas de recreo en Bilbo.

El **Área de Juventud y Deporte** ejecuta diversos programas de ocio socioeducativo infancia, adolescencia y juventud así como colonias en diversos periodos vacacionales. Estos programas se significan como un recurso significativo para favorecer la conciliación y la corresponsabilidad entre las familias que acceden al mismo, habiendo de señalar asimismo que la programación de actividades se define y desarrolla teniendo en cuenta criterios de igualdad de género y que la información de datos sobre el programa se hace de forma desagregada.

El **Área de Igualdad** dispone de una línea de subvenciones que tiene como objetivo favorecer un reparto equilibrado de los usos del tiempo, fomentando la corresponsabilidad de mujeres y hombres en las tareas domésticas y en el cuidado a personas, la paternidad responsable para la plena participación de mujeres y hombres en todas las esferas de la vida en el municipio de Bilbao. Esta línea está destinada a las Asociaciones de Madres y Padres de Alumnado (AMPAS) o los centros educativos públicos o concertados de Bilbao.

**Seguridad de las mujeres**

Respecto a esta capacidad, se pueden diferenciar dos grandes ámbitos: violencia contra las mujeres (tanto asistencia como prevención) y salud.

- Cooperación, Convivencia y Fiestas.
- Acción Social.
- Movilidad y Sostenibilidad
- Igualdad.
- Seguridad ciudadana.
- Regeneración urbana.
- Salud y Consumo.
- Hacienda.

- Herritarren Arreta eta Partaidetza eta Nazioarteko Gaiak.

**7. irudia. Emakumeen segurtasunaren gaitasunean 1. eta 2. mailetan kokatutako aurrekontu-zenbatekoaren** banaketa, ordezkaritzen arabera.

| Ordezkaritza | € | % |
|---|---|---|
| Lankidetza, Bizikidetza eta Jaiak | 2.386.923 | 33,8 |
| Gizarte Ekintza | 1.676.778 | 23,7 |
| Mugikortasuna eta Jasangarritasuna | 767.783 | 10,9 |
| Berdintasuna | 683.664 | 9,7 |
| Herritarren segurtasuna | 554.956 | 7,9 |
| Hiri-berroneratzea | 479.400 | 6,8 |
| Osasuna eta Kontsumoa | 435.819 | 6,2 |
| Ogasuna | 74.065 | 1,0 |
| Herritarren Arreta eta Partaidetza eta Nazioarteko Gaiak | 5.399 | 0,1 |
| **Aurrekontua guztira, 1. eta 2. mailetan, emakumeen segurtasunaren arabera** | **7.064.786** | **100** |

*Udal-iturriak*

**Lankidetzako, Bizikidetzako eta Jaietako Sailak** bi eremu bereizitan lan egiten du. Batetik, Aste Nagusian, sexu-erasoen prebentzioan. Bestetik, Bilboko emakume migratzaileen ahalduntzeari helduz, genero-indarkeria prebenituz, sexu- eta ugalketa-osasuna sustatuz, eta emakume parte-hartzaileen komunitateetan transmisio-kanalak ezarriz, emakumeak sentsibilizatuz eta emakumeei informatuz, beren inguruneetan eta beren inguruneetatik.

Ildo horretan, “Emakumea, Osasuna eta Indarkeria ”programa azpimarratu beharra dago. Bilbon bizi diren emakume migratzaileekin eta gutxiengo etnikoetako emakumeekin lan egiten du, emakumeen aurkako indarkeria-egoerak prebenitzeko, haiek beren bizitzaren kudeaketan protagonista izateko xedez ahalduntzeko eta haurrak eta nerabeak babesteko mekanismoak sustatzeko.

**Gizarte Ekintzako Sailak** programa espezifikoak garatzen ditu, nola genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat, hala prostituzioan diharduten emakumeentzat.

Bestetik, **Mugikortasun eta Jasangarritasun Sailak**, Bilboko herritarren mugikortasun segurua errazteko helburuarekin, hainbat jardun inplementatzen ditu, hala nola Gautxori zerbitzua, gauetan, interesdunen eskatu ahalako geldialdiak egiteko bidea emanez.

**Berdintasun Sailak** hainbat zerbitzu inplementatzen ditu emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko helburu nagusiarekin. Aipatzekoa da lan hori sektorearteko ikuspegi batetik egiten dela, eta beraz, emakume gazteei, adinekoei eta genero-indarkeriaren biktima direnei arreta berezia eskaintzen zaiela. Hala, Bilboko udalerriak dirulaguntza-lerro espezifiko bat dauka indarrean, emakumeen aurkako indarkeriaren prebentziorako eta/edo sentsibilizaziorako. Lerro horrek emakumeen eta/edo feministen elkarteak ditu jomugan, baita emakumeen idazkaritza, ordezkaritza edo beste edozein funtzionamendu-organo autonomo duten elkarte mistoak ere, baldin eta, irabazi-asmorik izan gabe, beren xede edo jardunen artean emakumeen eta gizonen

- Atención y Participación Ciudadana e Internacional.

**Figura 7.** Distribución del **importe presupuestario ubicado en los grados 1 y 2 en la Capacidad Seguridad de las mujeres** por delegaciones.

| Delegación | € | % |
|---|---|---|
| Cooperación, Convivencia y Fiestas | 2.386.923 | 33,8 |
| Acción Social | 1.676.778 | 23,7 |
| Movilidad y Sostenibilidad | 767.783 | 10,9 |
| Igualdad | 683.664 | 9,7 |
| Seguridad Ciudadana | 554.956 | 7,9 |
| Regeneración Urbana | 479.400 | 6,8 |
| Salud y Consumo | 435.819 | 6,2 |
| Hacienda | 74.065 | 1,0 |
| Atención y Participación Ciudadana e Internacional | 5.399 | 0,1 |
| **Total presupuesto grados 1 y 2 en seguridad de las mujeres** | **7.064.786** | **100** |

*Fuentes municipales*

El **Área de Cooperación, Convivencia y Fiestas** trabaja en dos ámbitos diferenciados. Por una parte, en la prevención de agresiones sexuales durante Aste Nagusia. Por otra parte, abordando el empoderamiento de las mujeres migrantes bilbaínas, mediante la prevención de la violencia de género, la promoción de la salud sexual y reproductiva, y el establecimiento de canales de transmisión en las comunidades de pertenencia de las mujeres participantes, sensibilizando e informando a las mujeres en y desde sus entornos.

En este sentido, cabe señalar el programa “Mujer, Salud y Violencia”, que trabaja con mujeres migrantes bilbaínas y de minorías étnicas, para la prevención de situaciones de violencia contra las mujeres, el empoderamiento para ser protagonistas en la gestión de sus vidas y la promoción de mecanismos de protección a la infancia y a la adolescencia.

El **Área de Acción Social** desarrolla programas específicos tanto para mujeres víctimas de violencia de género, como para mujeres que se dedican a la prostitución.

Por su parte, el **Área de Movilidad y Sostenibilidad,** con el objetivo de facilitar la movilidad segura, implementa diversas actuaciones como el Gautxori, facilitando que por las noches pueda haber paradas a solicitud de las personas interesadas (a demanda).

El **Área de Igualdad** implementa diversos servicios con el objetivo principal de prevenir la violencia contra las mujeres. Se debe mencionar que este trabajo se lleva a cabo desde una perspectiva interseccional por lo que se presta especial atención a las mujeres jóvenes, a las mayores y a las mujeres víctimas de violencia de género. Así, se dispone de una línea de subvención específica para la sensibilización y/o la prevención de la violencia contra las mujeres, en el municipio de Bilbao. Esta línea está destinada a asociaciones de mujeres y/o feministas y asociaciones mixtas que cuenten con secretaría de mujeres, delegación o cualquier otro órgano de funcionamiento autónomo, sin ánimo de lucro y que

berdintasuna eta emakumeen aurkako indarkeria deuseztatzea badute.

Esparru orokor gisa, Berdintasun Sailak beren-beregi daraman Emakumeen kontrako indarkeria matxistaren prebentziorako eta indarkeria horren biktimen arretarako programa aipatu beharra dago, Bilboko Udal osoak eta bere erakunde autonomoek emakumeen aurkako indarkeria forma guztiak desagerrarazteko neurriak eta ekintza positiboak gauzatu behar badituzte ere, Bilboko Udalaren Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Ordenantzako 26. artikuluaren arabera. Hona hemen programaren berariazko helburuak:

- Genero-indarkeriaren biktima izandako emakume bilbotarrei eta beren seme-alabei arreta osoa, espezializatua eta koordinatua eskaintzea, eraginkortasun sozialaren irizpidea eta kalitate irizpidea kontuan hartuta, emakume horiek berriro ere bizitza autonomoa eta indarkeriarik gabea izan dezaten, haien integritate fisikoa eta ongizate mentala babestuz.
- Bigarren mailako biktimizazioa desagerrarazten laguntzen duten hurbileko estrategiak ezartzea, profesionalei prestakuntzarako, antolakuntzarako eta esku hartzeko behar dituzten tresnak eskainiz.
- Salatu ez diren indarkeria-egoerak goiz atzemateko eta kasu horiek behar bezala bideratzeko lan egitea.
- Instituzioen arteko koordinaziorako eta lankidetzarako espazio eta tresnen sorrera bultzatzea, eta baita alor horretan eskumenak dituzten sistemen arteko koordinaziorako eta lankidetzarako tresnak ere, arreta integrala bermatzeko xedez.
- Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren inguruko sentsibilizazioan eta prebentzioan aurrera egitea, funtseko eragile sozial eta komunitarioekin batera egindako jarduketen bidez.

Programa bi ardatzetan antolatzen da: prebentzioa eta sentsibilizazioa batetik, eta arreta eta koordinazioa bestetik.

**Herritarren Segurtasuneko Saila** kontziente da genero-ikuspegia bere eguneroko jardunean integratzeko egin beharreko lanaz, eta kasu honetan, emakume polizientzat ekipamendu espezifikoa hornitzeaz arduratzen da.

**Hiri-berroneratzeko Sailak** kolektibo kalteberekin zerikusia duten alderdiak hartzen ditu aintzat, Bilboko udalerriko hainbat puntu birgaitzeko laguntzak baloratzean.

Bestetik, **Osasun eta Kontsumo Sailak** hainbat ekimen gauzatzen ditu emakumeen osasuna sustatu eta zaintzeko. Bereziki aipatzekoak dira Bilboko haur eta gazteen artean osasuna sustatzearekin zerikusia duten ekimenak, elikadura osasuntsua eta jarduera fisikoa bultzatzeaz gainera afektibitate- eta sexu-hezkuntzari heltzen diotenak.

**Ogasun Sailak** behar diren baliabideetako batzuk ematen ditu, genero-indarkeriaren biktima izanik ostatu alternatibo baten beharrean dauden emakumeek beren bizitzako etapa berri horretan behar dituzten bizi-baldintzak eduki ditzaten.

contemplen entre sus fines o actuaciones la promoción de la igualdad de mujeres y hombres y la erradicación de la violencia contra las mujeres.

Como marco general, señalar el Programa de Prevención y Atención de Violencia Machista contra las Mujeres dependiente específicamente del Área de Igualdad, aunque todo el conjunto del Ayuntamiento de Bilbao y del resto de organismos dependientes del mismo, y según el artículo 26 de la Ordenanza del Ayuntamiento de Bilbao para la Igualdad de Mujeres y Hombres deben desarrollar medidas y acciones positivas en la eliminación de la violencia contra las mujeres en cualquiera de sus manifestaciones. Los objetivos específicos del programa son los siguientes:

- Ofrecer con criterios de eficiencia social y de calidad una atención integral, especializada y coordinada a las mujeres bilbaínas víctimas de violencia de género, así como a sus hijos e hijas, que les permita recuperar una vida autónoma y libre de violencia, salvaguardando su integridad física y bienestar emocional.
- Establecer estrategias de proximidad que contribuyan a eliminar la victimización secundaria, facilitando a las y los profesionales las herramientas formativas, organizativas y operativas necesarias.
- Trabajar en la detección precoz de situaciones de violencia no denunciadas y en la correcta canalización y derivación.
- Impulsar la creación de espacios e instrumentos de coordinación y colaboración interinstitucional y entre diferentes sistemas con competencias en este ámbito con el fin de garantizar una atención integral.
- Avanzar en la sensibilización y prevención de la violencia machista contra las mujeres a través de actuaciones en colaboración con agentes sociales y comunitarios clave.

El programa se articula en dos ejes: prevención y sensibilización y atención y coordinación.

El **Área de Seguridad ciudadana** es consciente del trabajo a realizar para integrar la perspectiva de género dentro de su actuación diaria, traduciéndose su actuación en este caso en la dotación de equipamiento específico para las mujeres policía.

El **Área de Regeneración urbana**, en la valoración de las ayudas para la rehabilitación en diferentes puntos del municipio de Bilbao, contempla aspectos relativos a colectivos vulnerables.

El **Área de Salud y Consumo,** por su parte, lleva a cabo diversas iniciativas para la promoción y el cuidado de la salud de las mujeres. Cabe señalar de manera especial aquellas relativas a la promoción de la salud en el colectivo infanto-juvenil de Bilbao, impulsando la alimentación saludable y la actividad física y abordando la educación afectivo-sexual.

El **Área de Hacienda** aporta algunos de los medios necesarios para que las mujeres víctimas de violencia de género que necesiten alojamiento alternativo dispongan de las condiciones necesarias en esa nueva etapa de su vida.

## VI. UDAL SARREREN GENERO-AZTERKETARAKO ESPERIENTZIA PILOA.

Laugarren atalean deskribatu denez, Bilboko Udalak bi jardunbide egoki egin ditu generoak diru-sarreretan daukan inpaktua ebaluatzeko. Hona hemen azken bi urtean egindako prozesua.

Bi proiektuak udal langileek egin dituzte. Hauek izan dira talde motorreko kideak:

- Berdintasuneko Zuzendaritza.
- Zergen Kudeaketako Zuzendaritza.
- Zergen Koordinazio eta Modernizazioko Sailataleko burutza.
- Jardueren gaineko Zergen eta Isunen Sailataleko burutza.
- Datuen eta Adierazleen Kudeaketako eta Analisiko Sekzioko burutza.
- Berdintasuna Sustatzeko Sekzioko burutza.

Prozesua 5 fase hauetan garatu da:

- 1. Talde motorraren zehaztapena eta eraketa.
- 2. Analizatu beharreko ordenantza finkatzea.
- 3. Parte-hartzaileei buruzko datuak eskuratzea.
- 4. Genero-inpaktuaren aurretiazko ebaluazio-txostena egitea.
- 5. Txostena talde motorrarekin kontrastatzea.

Diru-sarreren generoaren araberako analisia txertatzearen lehenengo hurbilpen bat izan da hasitako prozesuaren emaitza. Hori funtsezko elementua da aurrekontu publikoetan genero-ikuspegia txertatzean sakontzeko, Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna lortzeko eta Emakumeen kontrako Indarkeria Matxistarik gabe Bizitzeko Legearen 14.1 artikuluan jasotzen denez.

**Generoak udal tasetan duen inpaktuari buruzko txostena. Irekitzeko tasa**

2021ean txosten bat egin zen, negozioak irekitzeko tasek (Jarduera eta instalazioengatiko nahiz lokalak irekitzeagatiko zerbitzuen tasa arautzeko ordenantza fiskalean arautzen dira) generoaren arabera daukaten inpaktuaren aurretiazko ebaluazioa egiteko.

1. **Deskribapen orokorra**

- **Ordenantzaren izena:** Udal jarduera edo zerbitzuak ematearen prezio publikoak arautzeko ordenantza.
- **Ardura duen saila:** Ogasun Saila
- **Helburuak:** Udal-eskumeneko zerbitzuak ematearen edo jarduerak egitearen prezio publikoak ezartzea eta eskatzea (Ordenantzaren 3. artikuluan daude jasota).
- **Ordenantzaren berdintasuna sustatzeko helburuak.** Aztertzea ea alderik ba ote dagoen emakumeen eta gizonen artean/emakumeen artean prezio publikoen ordainketako aldearen inpaktua, eta, hala bada, horiek saihesteko neurriak hartzea.

2. **Ordenantzaren, plan estrategikoaren edo administrazio-egintza orokorraren analisia, generoaren arabera.**

**Emakumeen eta gizonen presentzia**

2019ko eta 2020ko azken bi ekitaldietan establezimenduak zabaltzeko tasa genero-ikuspegitik aztertu da, pertsona fisikoen eta pertsona juridikoen generoa kontuan hartuta. Ikus daiteke (emakumeen eta

## VI. BUENAS PRÁCTICAS EN MATERIA DE INGRESOS MUNICIPALES. LA EXPERIENCIA DEL AYUNTAMIENTO DE BILBAO

Tal y como se ha descrito en el apartado 4, el Ayuntamiento de Bilbao ha desarrollado dos buenas practicas con relación a la evaluación del impacto de género de los ingresos. A continuación se describe el proceso llevado a cabo durante los dos últimos años.

Ambos proyectos se han desarrollado por personal municipal y el grupo motor ha estado compuesto por:

- Dirección de Igualdad.
- Dirección de Gestión Tributaria.
- Jefatura de SubÁrea de Coordinación y Modernización tributaria.
- Jefatura de SubÁrea de Tributos sobre actividades y multas.
- Jefatura de Sección de Gestión y Análisis de datos e indicadores.
- Jefatura de Sección de Promoción de la Igualdad.

El proceso se ha desarrolla en 5 fases que se detallan a continuación:

- 1. Determinación y composición del grupo motor.
- 2. Fijación de la ordenanza a analizar.
- 3. Obtención de datos relativos a participantes.
- 4. Elaboración del informe de evaluación previa del impacto de género.
- 5. Contraste del informe con el grupo motor

El resultado del proceso iniciado ha constituido un primer acercamiento a la inclusión del análisis de género de los ingresos. Este es un elemento fundamental para profundizar en la integración de la perspectiva de género en los presupuestos públicos, tal y como se recoge en el art. 14. 1 de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres.

**Informe de impacto de género en tasas municipales. Tasa de apertura**

En 2021 se elabora un informe de evaluación previa de impacto en función del género de las tasas de apertura de negocios, que se integran dentro de la Ordenanza Fiscal Reguladora de las Tasas por Prestación de Servicios por Actividades e Instalaciones y Apertura y Establecimiento de Locales.

1. **Descripción general**

- **Denominación de la ordenanza:** Ordenanza Fiscal reguladora de las Tasas por prestación de servicios por Actividades e Instalaciones y Apertura y Establecimiento de Locales
- **Área responsable:** Hacienda
- **Objetivos:** Regular las Tasas por prestación de servicios por Actividades e Instalaciones y Apertura y Establecimiento de Locales
- **Objetivos para la promoción de la igualdad de la ordenanza:** Analizar si se producen diferencias de mujeres y hombres en relación a la Tasa de Apertura.

2. **Análisis en función del género de la ordenanza, plan estratégico o acto administrativo de carácter general.**

**Presencia de mujeres y hombres**

Se ha realizado un análisis desde la perspectiva de género de la Tasa de apertura de los dos últimos ejercicios 2019 y 2020, teniendo en cuenta el género de las personas físicas y de las personas jurídicas. Se puede

gizonen datuak soilik kontuan hartuta) emakumeen ordainagirien ehunekoa % 34-36 ingurukoa dela (2019ko eta 2020ko datuak, hurrenez hurren), eta gizonena, berriz, % 65-63. Gainera, ordainagirien zenbatekoa kontuan hartzen bada, oraindik alde handiagoa ikus daiteke; izan ere, 2019an, emakumeen ordainagirien zenbatekoa gizonen ordainagirien zenbatekoen herena dela ia, eta 2020an, ia erdia.

**8. irudia.** Ordainagirien eta ordainagirien zenbatekoaren banaketa emakumeen eta gizonen artean, 2019 eta 2020 urteetan.

| Generoa | Ordain. 19 % | Ordain. 20 % | Zenbatekoa 19 % | Zenbatekoa 20 % |
|---|---|---|---|---|
| Emakumeak | 34,7 | 36,8 | 25,5 | 32,2 |
| Gizonak | 65,3 | 63,2 | 74,5 | 67,8 |
| **Guztira** | **100** | **100** | **100** | **100** |

*Udal-iturriak*

Ordenantzaren 7. artikuluan jasotzen den bezala, zerbitzu-ematea edo haren zergapeko egitate diren udal jarduerak hasten direnean sortzen da tasa eta ordaintzeko betebeharra. Hau da, establezimenduak jartzeko eta zabaltzeko tasa eskatuko duten pertsonei soilik zuzendutako ordenantza da.

Ordenantzan ez da jasotzen desberdintasunak murrizteko neurri espezifikorik, baina badakigu establezimenduak irekitzeko tasak eskatzean sor litezkeen oztopoak aztertu beharko liratekeela. Ondorio hori ateratzen da, halaber, GEM Nazioarteko Behatokiaren (Global Entrepreneurship Monitor) GEM Espainia 2019-2020 txostenetik eta Emakundek generoaren araberako eraginaren ebaluazioak egiteko material sektorial gisa egindako «Ekintzailetza eta ETEak» dokumentutik.

**Erabakietan parte hartzea**

Establezimenduak jartzeko eta zabaltzeko tasa pertsona fisikoek zein juridikoek eskatzen badute ere, ez da aztertuko azken horien osaera. Nolanahi ere, eta aurretik adierazi den bezala, emakumeen eta gizonen presentziaren atalean pertsona juridikoen Administrazioko edo Zuzendaritzako kideei buruzko datuak sartu dira.

Neurriei dagokienez, ez da aurreikusten ordezkaritza orekatua edo eremuan duten presentziaren antzeko ordezkaritza lortzen lagun dezakeen neurririk sartzea; izan ere, horretarako, pertsona juridikoen osaera -emakumeak eta gizonak- aztertu beharko litzateke aldez aurretik.

**Baliabideetarako sarbidea**

GEM Nazioarteko Behatokiak, 2019-2020ko GEM Espainia txostenean, baieztatzen du erakunde-, enpresa-, gizarte- eta familia-testuinguruaren zenbait alderdik eragina dutela emakumeen giza kapitalaren, kapital sozialaren, finantzarioaren eta ospearen metaketarekin lotutako alderdietan, eta eragin hori funtsezkoa izango dela enpresa-jarduera bat abian jartzeko, bai eta identifikatutako aukera motan, baliabide berrietarako sarbidean eta espero diren emaitzetan ere. Hala, hainbat alderdi aztertu nahi izan dira, emakumeen eta gizonen artean alderik dagoen ikusi ahal izateko.

Zerbitzu motari dagokionez, 2019ko eta 2020ko datuak aztertuta, ikus daiteke emakumeek establezimenduak zabaltzeko tasak eskatzen dituztela honetarako: merkataritza, estetika eta bulegoetarako

observar (teniendo en cuenta únicamente los datos de mujeres y hombres) que el porcentaje de recibos de las mujeres se ubica en torno a un 34-36% (datos de 2019 y 2020 respectivamente) mientras que el de los hombres es de un 65-63%. Además, si se tiene en cuenta el importe de los recibos todavía se puede apreciar una mayor diferencia ya que en 2019 el importe de los recibos de las mujeres es casi un tercio del de los hombres y en 2020, la mitad prácticamente.

**Figura 8.** Distribución de recibos y del importe de los recibos entre mujeres y hombres, años 2019 y 2020.

| Género | Recibos 19 % | Recibos 20 % | Importe 19 % | Importe 20 % |
|---|---|---|---|---|
| Mujeres | 34,7 | 36,8 | 25,5 | 32,2 |
| Hombres | 65,3 | 63,2 | 74,5 | 67,8 |
| **Total** | **100** | **100** | **100** | **100** |

*Fuentes municipales*

Tal y como se recoge en el artículo 7 de la Ordenanza, el devengo de la tasa se produce cuando se inicia "la prestación de servicio o realización de actividades municipales que constituyen su hecho imponible". Es decir, se trata de una Ordenanza destinada únicamente a aquellas personas que vayan a solicitar la tasa de apertura y establecimiento de locales.

